

The SocialTech Times



Gatazkarik Gabeko Teknologia lortzearen alde



www.gatazkarikgabekoteknologia.org

002. Zb.

→ EKAINAREN 20A, ERREFUXIATUEN MUNDU EGUNA

Ikusi zer lotura dagoen zure mugikorraren eta Kongoko ekialdeko emakumeen kontrako indarkeriaren artean

Talde armatuek kontrolatzen dute 'odolezko mineralen' ustiapena, prozesamendua eta salmenta, zeinak behar-beharrezkoak diren teknologia berrietarako

Ekainaren 20an gogoan dugu Errefuxiatu eta Lekualdatuko pertsonen Nazioarteko Eguna.

Gogoan ditugu gatazka armatuen ondorioz bizia galtzeko beldurragatik ihes egin behar izaten duten pertsonen horiek guztiak, hau da, errefuxiatutako edo lekualdatutako pertsonak. Haientzat bizimodu duinerako eskubidea aldarrikatzen dugu, indarkeriarik edo bazterketarik gabea. ALBOANek, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren (JRS) bitartez, gerragatik errefuxiatutako eta lekualdatutako pertsonen laguntzen die gaur egun Afrika, Asia eta Latinoamerikako 4 gatazkatan. Gatazka horietan, emakumeak eta neskak dira ahulena, munduak maiz ahazten dituenak, eta herritarren artean izua eragiteko egiten diren ankerkeria izugarrien biktimak.

ALBOAN GKEak Kongoko Errepublikako Demokratikoko ekialdeko emakumeen egoerara gerturatu nahi du gizartea, eta haren gaineko arreta piztu. Herrialde horretako milaka emakume ausarten ahotsak ekarri nahi ditu. Egunero beren bizimodua, familia eta beren komunitatearen hobetzearen alde borrokatzen diren emakumeak dira, **bizitza egokitu zaien drama humanitarioaren egoeran duintasunari eusteko gai diren emakumeak.**

Kongoko Errepublikako Demokratikoko ekialdea munduko meatzaritza-gune garrantzitsuenetakoa bat da. Eskualde horretan eskuratzen da teknologia berrien iraultzarako —bereziki, teknologia mugikorrerako— ezinbestean behar diren lehengaien zati handi bat. Lehengai horiek gure mugikorrak, tableta eta ordenagailuen barnean daude: urrea, eztainua, tantaloa eta wolframa.

Haien erauzketa, prozesatzea eta salmenta talde armatuen esku dago. Mineral horien ustiapenetik eta legearen aurkako trafikotik eskuratzen duten dirua arma gehiago erosteko erabiltzen dute talde horiek, **Bigarren Mundu Gerraz geroztik izan den gatazka odoltsuena** iraunaraziz.

Gerra horren ondorioz, Kongo infernu bihurtu da: bost milioi hildako baino gehiago 1998az geroztik, lekualdatutako milioi bat pertsona 2013an bakarrik, eta, bortxaketa gerrako arma bihurtu denetik, urtean ehun mila emakume bortxatu.

«Gatazkarik gabeko teknologia» kanpainaren bitartez, ALBOAN GKEak teknologiaren eta Kongoko ekialdeko indarkeriaren arteko lotura hausten lagundu nahi du, batez ere emakumeen aurkako askotariko indarkeriari dagokionez.

EMAKUMEEN IKUSEZINTASUNA ETA SUFRIMENDUA

Kongoko ekialdeko gatazkan, emakumeak dira lehenengo biktimak.

GENERO-INDARKERIA

Emakumeek etengabe jasaten dituzte bortxaketak edo gehiegikeriak gatazkan parte hartzen duten talde armatuen edo lekualdatutako eremuetako gizonen eskutik. Askotan, trauma psikologikoak ez ezik, gaixotasun larriak hartzen dituzte, hala nola hiesa. Horrez gain, bortxatuak izan direla edo hiesaz kutsatu direla ezagutzen bada, iraindu eta gizartetik baztertu egiten dituzte.

LAN-ESPLOTAZIOA

Lekualdatutako pertsonentzako eremuetan bizitzeko bitartekorik ezak eta familia-kargak bultzatuta, emakumeek zamaketari-lanetan



Emakumeek gero eta gordintasun handiagoz bizi dute Kongoko ekialdeko drama humanitarioa.

aritu behar izaten dute meategietan. Esklabotzara gerturatu den egoeran egiten dute lan: ez dute inongo lan-segurtasunik, soldatak ez dira nahikoa bizirauteko eta osasunarentzat kaltegarriak diren lanetan aritzen dira.

SEXU-ESPLOTAZIOA

Inongo baliabiderik ez duten eta gizarteak baztertu dituen emakume askok bere gorputza saltzen du bizimodua aurrera ateratzeko. Irainak eta tratatu txarrak jasatez gain, eta erabili egiten dituzte.

HEZKUNTZA-BAZTERKETA

Lekualdatutako familia askok beren ondasunak saltzen dituzte semeak eskolatu ahal izateko; aldiz, alabak etxean geratzen dira. Desplazamendu horren ondorioz, asko dira inoiz eskolara joaterik izan ez duten neska gazteak.



datua

'Lekualdatutako emakumeak' bideo-dokumentala

ALBOANek 'Lekualdatutako emakumeak' izeneko bideo-dokumental txiki bat egin du, zeinak jasan behar duten egoera deskribatzen baitu.

www.gatazkarikgabekoteknologia/emakumeak

ALBOAN BEREZIA

→ USTIAPENAREN BIKTIMAK

Aurrera jarraitzeko indarra aurkitzea



Emakumeek esklabotzara gerturatzaren egoeran egiten dute lan janari apur baten truke.

Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeek beren azaletik kontatu digute drama

LABWIRA

«Lurrik ez baduzu, edozertan lan egin behar duzu. Ni mineral-zakuak kargatzen hasi nintzen. Bi egunez horretan jardun ondoren, bizkarra hautsita, puztuta eta gaixorik geratzen zara; izugarria da. Emakumeok sufritu egin behar izaten dugu 50 kilorainoko kolatan-zakuak garraiatuz. Gure semeetako bat nirekin etortzen da, eta hariak kargatzen laguntzen dit. Batzuetan ez digute ordaintzen, baina, hala ere, kargatzen jarraitu behar izaten dugu. Ez dago beste aukerarik. Zenbait pertsona, ahaleginaren ondorioz gaixotu, eta hil egiten da; beste batzuek beso bat edo hanka bat hausten dute, eta halaxe geratzen dira bizitza osorako. 2 km-ko harri-lerro bat jasotzeagatik ordaintzen digutenarekin, ezin dugu gosaria ere ordaindu. Erosten dugun janaria erositako

egunean bertan bukatzen zaigu, eta hurrengo egunean hutsetik hasi behar dugu berriz. Zorterik izanez gero, egun horretan lana lortzen dut. Lanik egiten ez badugu, egun horretan goseak egin behar dugu lo».

BLANDINE

Blandine, barne-lekualdatuentzako kanpamentu batean bizi den 29 urteko emakume bat, janari eta egur bila atera zen Mweso herrixkako bere txabolatik. Itzultzean, laster bere hiru seme-alaba txikiak elikatu ahal izango zituela pentsatu zuen. Bat-batean, bidea oztopatzen ari ziren bost gizon armaturekin egin zuen topo. Haiek iseka egiten eta bultzaka hasi zitzaizkion; azkenean, lurrera erori zen. Orduan, batak bestearen atzetik, denek bortxatu zuten. «Halako batean joan zirenean, ez ne-

kien bizirik ala hilik nengoen. Nire aurpegia malkoz bustita zegoen, baina ez nuen nahi inork hala ikusterik. Lo-tsatuta nengoen gertatu zitzaidanagatik», gogoratzen du Blandinek.

Zorionez, bazekien zer egin: 72 ordu baino lehen ospitalera joan behar zuen, beharrezko medikamentuak eskuratzeko (HIESAZ kutsatzeko arriskuan egon direla uste duten pertsonentzako pilulak). Baina ezin zion senarrari gertatutakoa kontatu, zaputuko, etxetik botako eta familia haren aurka jarriko zuen beldur baitzen.

«Senarra nirekin etor zedin, konbultsioak nituela esan nion. Medikak kanpoan itxaron zezan eskatu zion, eta orduan pilulak eman zizkidan. Etxera eraman izan banitu, senarrak berehala ulertuko zukeen gertatutakoa. Hemen, gizon guztiek oso ondo dakite hiesaren pilula horiek zertarako eta zein koloretakoak diren, eta senarrak zaputzu egingo nindukeen», azaldu du Blandinek.

→ GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIA

Teknologiaren eta indarkeriaren arteko loturak hausteko kanpaina

datua
Informazio guztia, klik batean

Informazio hori eta dokumentazioa kanpainaren webgunean dituzue: www.gatazkarikgabekoteknologia.org

«Gatazkarik gabeko teknologia» kanpaina ALBOAN GKEaren proposamen bat da, eta ikusarazi nahi du zer lotura dagoen Kongoko ekialdeko indarkeriaren eta gure tresna elektronikoaren (bereziki mugikorren) artean.

Hori lortzeko bidean, web-plataforma bat prestatu du, kanpainaren gaztelaniazko izena duena (www.gatazkarikgabekoteknologia.org). Gune horretan, «Zure mugikorrak ezkutatzeko duena» izeneko 4 minutuko dokumental labur bat aurkeztu du. Bideo horretan indarkeriaren eta teknologien arteko lotura hausteko loturak eta aukera azaltzen dira. Dokumentalean Vanessa Sánchez kazetari eta ETBko aurkezleak parte hartu du eskuzabaltasunez.

Arazo horren eta zehazki emakumeek jasan behar duten egoera latzaren inguruko ezagutza zabaltzeko ahaleginez gain, ALBOAN GKEak parte-hartzeko zenbait aukera proposatu zituen, bai partikularrentzat, bai talde eta erakundeentzat. Kongoko ekialdeko gatazka armatuak eta indarkeriak eragin dituen emakume errefuxiatu eta lekualdatuei laguntzeko

proiektuak **diruz lagundu** daitezke, baita **sinadurak bildu** ere, Europako araudi bat sustatzeko.

Kanpainak kontzientziatu egin nahi gaitu bereziki mugikorreia eta, oro har, teknologiari ematen diegun erabileraz, eta haiek arduraz erabiltzeko eta kontsumitzeko. Horretarako, hezitzaile, elkarre, boluntario-talde eta ikastetxeentzako prestaketa sustatzen du. Halaber, «Kongoren aldeko mugikorrak» lelopean, mugikorrak biltzeko eta berrera-biltzeko ekimena jarri du martxan. Kanpaina horrek ingurumena zaintzea sustatu nahi du, eta jasotako gailuekin lortutako diru-sarrerak Kongoko ekialdean desplazatutako pertsonen bideratutako proiektuak babesteko erabiliko dira.

AURKI EZAZU ZEURE MUGIKORRAK KONGOKO INDARKERIAREKIN DUEN LOTURA



ZEURE MUGIKORRAK EZKUTATZEN DUENA

ESTREINALDI APARTA
WWW.GATAZKARIKGABEKOTEKNOLOGIA.ORG

ALBOAN

GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIA

www.gatazkarikgabekoteknologia.org

→ ELKARRIZKETA JUSTINE MSASIKA

«Legez kontrako meatzaritza Kongoko ekialdeko emakumeen aurkako erasoekin dago lotuta»

Justine Msasika, Kongoko Errepublikako ekialdeko emakumeen eskubideen aldeko aktibista eta 'Synergy of Women for Victims of Sexual Violence' erakundeko koordinatzailea

Kongoko Errepublika Demokratikoko legez kontrako meatzaritza oso lotuta dago Afrikako erdialdeko herrialde horretan emakumeek bizi duten egoera larriarekin. Sexu-indarkeria terrorismo mota bat bilakatu da; izan ere, herritarrak beren herrietatik botatzeko eta meategien ustiaketak dauden lurren gaineko kontrola eskuratzeko erabiltzen da, izua eragiteko gerrako arma gisa.

Datuak kezkatzekoak dira. 1.000 emakume baino gehiago bortxatzen dira egunero, *American Journal of Public Health* aldizkariaren txosten baten arabera, 48 bortxaketa orduko. Halere, badaude bestelako pertsonak. Justine Msasika, Kongoko Errepublikako ekialdeko emakumeen eskubideen aldeko aktibista eta Synergy of Women for Victims of Sexual Violence erakundeko koordinatzailea.

Zein da Synergy of Women for Victims of Sexual Violence erakundearen eginkizuna?

Batez ere, Kongoko Errepublika Demokratikoan emakumeek jasaten duten sexu-indarkeriaren aurka egiten du. Hau da, laguntza medikoa, laguntza psikosoziala eta birgizarteratze ekonomikoa.

Komunitateak sentsibilizatu be-

har dira, sexu-indarkeria saiheste-ko ez ezik, sexu-indarkeriaren biktimak babesteko. Arazo honi kalitateko erantzuna eman nahi badiogu, ezin dugu esan emakumei soilik laguntza medikoa eta laguntza psikosoziala ematen dizkiegula, hori ez bailitzateke nahikoa izango sexu-indarkeria gelditzeko. Sexu-indarkeriaren ondorioez arduratzea beharrezkoa bada ere, kontuan izan behar da horrekin batera eragileez arduratu behar dela.

Lotura zuzena al dago sexu-indarkeriaren eta legez kontrako meatzaritzaren artean?

Bi lotura zuzen daude: batetik, talde armatuen eskutik emakumeen bortxaketak, komunitateak beren lurretatik botatzeko eta horrela baliabide naturalak ustiatu ahal izateko; bestetik, meategietan edo meategiei lotutako zerbitzuetan lan egiten duten emakumeen erasoak. Lan-esplotazioa jasaten dute (askotan ez zaie ordaintzen), eta/edo sexu-esplotazioaren biktima dira.

Zergatik jasaten du emakumeak horrenbeste indarkeria?

Emakumea oso baliotsua da gure komunitateetan, gure kulturaren eta gure herrialdean. Emakumea sakratua da. Emakumei erasotzean, gizonak bere indarra galtzen du, eta



Justine Msasika da Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeen esplotazioaren aurkako borrokako banderaduna.

ezin du borrokatu. Emakumearen bitartez erasotzen diote gizonari.

Zertan hobetu da emakumearen egoera azkenaldian?

Izan dira zenbait hobekuntza azken urteotan. Ezin da esan emakumeen egoera 2002koa bezalakoa izan dela 2014an. Estrategia nazionalako lege berriak atera dira, eta emakumeak salatzen ausartzen ere hasi dira. Baikorrak izan behar dugu, prozesu luzea da, eta milaka interes ezberdin daude, baina unea da emakumeen duintasuna onartzeko eta beren eskubideak babesteko. **Nazioarteko mailari dagokionez,**

zer deritzozu nazioarteko Goi-Bilerei, hala nola aurten Londresen egin den Global Summit to End Sexual Violence in Conflict?

Gaiaren inguruan hitz egiteko eta nazioarteko mailan ikusgai jartzeko aukera paregabea izan zen, ahaztu samartuta egon ohi den gertakaria baita. Batzarraz baliatuz, emakumeek jasaten duten sexu-indarkeria komunikabideetara zabaldu da; beraz, jende gehiagok izan du Kongoko ekialdean gertatzen ari dena apur bat gehiago ezagutzeko eta ulertzeko aukera.

Nolanahi ere, zalantzan jartzen dut oi-bilkura horretatik atera zen Eskuliburua, frantsesera ere ez baita itzuli, eta justizia-sisteman sartzeko frogak lortu behar izatea dakar. Londres utzi ondoren, zenbait emailek konpromisoa erakutsi eta ekimena diruz laguntzea erabaki zuen, baina ni gehien mintzen nauena zera da: ez zegoen eta ez dago gobernuen konpromiso nabarmen eta errealik. Esaterako, nire herrialdea, Kongoko Errepublika Demokratikoa, bere burua biktima gisa aurkeztu zuena, egoera aldatzeko ekintza zehatz eta erabakigarriarik proposatu gabe.

→ HAREN SALMENTAK USTIAPENA ELIKA DEZAN SAIHESTEKO

Europako Parlamentuko Plenoak «gatazken iturri diren mineralen» inguruko erregulazio baten ALDE bozkatu du

ALBOAN GKEak Europako Parlamentuak, maiatzaren 20an, Estraburgon egindako bozketaren emaitza ospatzen du, honek gatazka inguruetatik datozen mineralen hornidura arduratsua bermatzea exijitzen baitu. Honek esan nahi du, Parlamentuaren proposamen honekin, kontsumo ondasunen ekoizpenean (gailu teknologikoak gehienak) ezta inua, tantalioa, wolframioa

eta urrea («gatazken iturri diren mineralak») erabiltzen dituzten EBko 880.000 enpresek mineralen jatorriaren berri eman beharko lukete.

Bozketa honen emaitza izugarritzko garaipena da, europarlamentariaren gehiengoak Giza-Eskubideen babesa talde batzuen interes ekonomikoaren gainetik jarri baitu.

ALBOAN GKEak, nazioarteko

beste 100 erakunde baino gehiagorekin batera, urtebete baino gehiagoko darama «Zure mugikorrak ezkutatzen duena» www.gatazkarikgabekoteknologia.org kanpaina indartsuan lanean eta 10.500 sinadura baino gehiago jaso ditu, Europar legedi batek Europako mineral-horniduraren industria-zeinak gatazka armatua elikatzen duen erregulazioa dezan.



Emakumeek mineral-zaku astunak mugitu behar izaten dituzte.

sinatu helbide honetan

www.gatazkarikgabekoteknologia.org

Gainera, ALBOAN europarlamentari euskaldun eta nafarrekin izan da, gai humanitario hau azaltzeko.

Hurrengo hilabeteetan, Kontseiluak, Batzordeak eta Parlamentuak adostasun lanari ekingo diote, behin betiko legedia zehazteko.



ALBOAN BEREZIA

→ LAGUNTZA HUMANITARIOA

Kongoko Errepublika Demokratikoko emakume lekualdatuei eta errefuxiatuei laguntzea eta haien eskubideak defendatzea

ALBOAN GKEak Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua eta Synergies de Femmes babesten ditu

ERREDAKZIOA / BILBO

Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdea urtez urte gehiago okertzen den krisi humanitario, sozial, politiko eta ekonomikoan murgilduta dago. Gatazkan tokiko nahiz eskualdeko hainbat talde militar eta matxino armatuk esku hartzen dute, guneko baliabide naturalak eta mineralak kontrolatzeko.

Ziurgabetasun- eta ezezagotasun-testuinguru horretan, Kongoko ekialdeko Iparraldeko Kivu probintziako herriek indarkeriatik ihesi ibili besterik ez dute egiten. Kalkuluen arabera, 2013ko irailarako 2 milioi lagunek baino gehiagok utzi zituzten beren etxeak. Haietako askok laguntza humanitariorik ez duten bat-bateko asentamenduetan bizirautean dute, ez baitute Nazio Batuen agentzien aitortpenik, ez babes ofizialik. **Emakumeak dira beti kalte-tuenak.**

ALBOANek Kongoko ekialdeko emakumeak babesten ditu

Kongo anabatatik eta pobreziatik atera nahi duen proiektu ororen ardatz emakumeek eta haien beharrek izan behar dute. ALBOANek, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako jesuiten GKEak, emakumeak ahaldunduz egiten du lan Kongoko ekialdean. Horretarako, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren eta Synergies de Femmes erakundearen esku-hartzea babesten du, behar horiei guztiei erantzuteko.

Hain zuzen, **Laku Handietako Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak** (JRS) lekualdatutako pertsonentzako eremuetan egiten du lan, indarkeriaren biktima izan diren nerabe nahiz emakumeei laguntza emanez.

Synergies de Femmes (Synergie) erakundeak sexu-indarkeria jasan duten emakumeentzako babesak sustatzen du harrera-etxeen bitartez.



GKEak indarkeriatik ihes egin behar izan duten emakume lekualdatuak babesten ditu.

datua

Sinatu legez kontrako meatzaritza geratzeko

Pertsona askoren bizitza dago jokoan. Mugikorrek odolez

zikindutako mineralak izatea saihesteko, esteka honetan sina dezakezu:

www.gatazkarikgabekoteknologia.org/firma

Birziklatu zure mugikorra 'Kongoren alde'

Telefono mugikorrak birziklatzeari eta berrerabiltzeari esker, mineral gutxiago erazi behar dira Kongoko ekialdean. Telefono mugikorraren osagaien % 90 da birziklagarria.

Birziklapen horrek eragindako etekin ekonomikoak, bestetik, **Kongoko ekialdeko gatazka armatuak eragin dituen emakume errefuxiatuen eta lekualdatuen aldeko proiektuak babesteko bideratuko dira.** «Kongoren aldeko mugikorrak» mugikor zaharra duen eta eman nahi duen edonori zuzenduta dago.

Proposamen honetan parte hartu nahi dutenek jada erabiltzen ez dituzten mugikorrak utz ditzakete ALBOANen egoitzetan, Euskaltelen dendetan eta beren laguntza eskaini duten erakunde askotan dauden edukiontzietan. Erakunde horien zerrenda kanpainaren webgunean aurkitu daiteke: **www.tecnologialibredeconflicto.org/moviles**. Parte hartzeko beste modu bat mugikorrak uzteko nork bere puntu bat eskatzea da:

moviles@alboan.org



Kanpainaren kartela.

→ NOLA LAGUNDU

Laguntza ekonomikoa

Kongoko ekialdeko gatazkagatik lekualdatutako emakumeen aldeko proiektuei laguntzeko, ALBOANek dirua biltzeko zenbat bide jarri ditu aukeran:

902 999 221 telefono-zenbakira deituta.

Kanpainaren webgunearen bidez donazioak online eginda:

www.gatazkarikgabekoteknologia.org/emakumeak edo **ALBOAN webgunea: www.alboan.org**

Dirua sar dezakezu ALBOANen kontu-korronteetan, diru-sarreraren kontzeptuan «Kongoko emakumeak» adieraziz.

BBVA: ES52 0182 1290 35 0010853001

Fiare: ES92 1550 0001 21 0000630723

Laboral Kutxa: ES39 3035 0083 27 0830064469

Kutxabank: ES06 2095 0000 70 9101227989

Jasotako ekarpenak oso baliotsuak izango dira Kongoko ekialdeko lekualdatutako emakumeentzat. Jasotako laguntzarekin egin daitekeenaren adibide batzuk:

- **10 €-rekin**, hiru emakumeren **alfabetizazio-eskolak eta poltsak egiteko tailerrera**ko materialak ordaindu daiteke.
- **30 €-rekin**, emakume baten **buruzagi izateko trebakuntza** egun bat ordaindu daiteke; trebakuntza horrekin, emakume hori gai izango da bere eskubideak eta bere komunitatearenak ezagutzeko eta defendatzeko, bai eta beste emakume batzuk trebatzeko ere.
- **60 €-rekin**, sexu-indarkeria jasan duen emakume baten **tratamendu medikoa** ordaindu daiteke.
- **2.000 €-rekin**, sexu-indarkeria jasan duten emakumeentzako **harrera-etxe** baterako ekipamendua eros daiteke.